



Nabarnizko Udala

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Lurraldeko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu, zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik.

Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua

Ordenantza hau Udalerriaren eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua

Udalaren aldetik, zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zuzenki edo zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak; pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 33. Artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

5. artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) Partikularren eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteagatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua

Ordenantza honetatik eratorritzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonen ere erantzungo dute.



Nabarnizko Udala

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. artikulua

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua

Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPEN ETA ZERGALDIA

10. artikulua

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau 2019ko abenduaren 26an onetsi da behin betiko, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean guztiz publikatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.



Nabarnizko Udala

ERANSKINA: TASAK

1. epigrafea.-Zabor bilketa eta ezabatze zerbitzuaren tasa

- 1) Etxebizitzak: 20,50 € /hiruhilabete.
- 2) Tabernak: 32,50 € /hiruhilabete.
- 3) Jatetxeak: 43,00 € /hiruhilabete.
- 4) Industriak: 43,00 € /hiruhilabete.

APLIKATZE ARAUAK

1. Ordenantza honen bidez, ezartzen den tasa udalerriko etxebizitza, eraikuntza, saldegi eta enpresa guztiei izango zaie aplikagarri.
2. Zaborrak Udaletxeak herrian zehar jarritako edukinontzietan bota beharko dira.
3. Zaborrak dagokion lekura interesdunak berak eroango ditu poltsa edo kaxa egokietan.
4. Norberaren lurretan, erreka edo bide publikoetan zaborrak botatzeak debekaturik dago.
5. Industrial kondarrak ez dira zabor bilketa zerbitzuaren barne

2. epigrafea.-Udal hilerri eta hileta zerbitzuak

Hileta zerbitzuen gaineko tasak:

- Gorpua hilobiratzea: 260,61 €
- Gorpua desobitzea: 260,61 €
- Errautsak edo gorpuzkinak hilobiratzea: 260,61 €
- Hileta eskubide agiria ematea: 22,48 €

Hileta eskubidearen kontzesioen gaineko tasak:

- Hilobia 10 urterako: 316,82 €
- Gorpuzkinentzako nitxo txikia 25 urterako: 255,50 €

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

- Gorpua hilobiratzearen gaineko tasa: gorpua hilobiratzeko zerbitzua, udalaren hilobian nahiz norberaren panteoian. Izena daraman plaka eta abar ez da sartzen, hori familiaren kontura doa.
- Gorpua desobitzea: udalaren hilobietan sartutako gorpuak, kontsezioko gehienezko epea igaro denean ateratzearren ez da ordainduko tasa hau, desobitzea Udalak bultzatuta edo aginduta baldin bada.
- Nabarniztarrek hileta eskubide agiria ematearen gaineko tasa osorik ordaintzeko obligazioa izango dute soilik. Epigrafe honetan araututako gainontzeko zerbitzu eta kontzesio guztiei tasaren gaineko %80ko gutxitzea aplikatuko zaizkie. Horretarako, hildako pertsona Nabarnizen erroldatuta egon behar da hiltzen denean, heriotza dataren aurreko bi urteetan zehar, gutxienez. Nabarnizen bost urtez erroldatuta egon diren pertsonak, nahiz eta jarraian ez izan, trataera berbera edukiko dute, baldin eta heriotza datan Nabarnizen erroldatuta egon badira.

4. epigrafea.-Estolderi zerbitzuaren tasa

Zerbitzuagatikoko kuota finkoa: 2,80 €



Nabarnizko Udala

5. epigrafea.-Agiri administratiboak emateagatiko tasa

1. Fotokopiak (bakoitza):

- A4 zuribeltzean, orrialde bakarra:0,10 €
- A4 koloreetan, orrialde bakarra:0,20 €
- A4 zuribeltzean, orrialde bietan:0,15 €
- A4 koloreetan, orrialde bietan:.....0,31 €
- A3 zuribeltzean, orrialde bakarra:0,26 €
- A3 koloreetan, orrialde bakarra:0,51 €
- A3 zuribeltzean, orrialde bietan:0,36 €
- A3 koloreetan, orrialde bietan:0,72 €

2. Planoen kopiak:

- DIN A1: 1,60 €
- DIN A3: 0,86 €.
- DIN A2: 0,96 €.
- DIN A0: 3,56 €.

3. Hirigintzazko kontsultak: 22,77 €

4. Hirigintzazko egiaztagiriak: 28,63 €

5. Udaletxean dauden agirien egiaztagiriak: 0,77 €

6. Udal idazkaritzaren ahalmen nahikotzea: 22,88 €

6. epigrafea.- Hirigintzako lizentziak emateagatiko tasa

1.- Obra eta instalakuntzarako lizentzia ematea:

- 300 eurotaraino:14,78 €
- 300,01 tik 1.500 eurotaraino:26,40 €
- 1.500,01 tik 6.000 eurotaraino:52,79 €
- 6.000,01 tik 30.000 €taraino:79,19 €
- 30.000,01 tik 60.000 €taraino:105,59 €
- 60.000 euro baino gehiago:.....126,70 €

2. Lehen okupaziorako lizentzia edo ihardueren irekitze baimena: 52,79 €

3. lursailen banaketarako baimena:63,36 €

4. Zehaztapan azterlana bideratzeko zerbitzuak: Biderapenagatiko tasa 0,10 €/m² Horretaz aparte, eskatzailearen bizkar izango dira bidezko ordain-sariak.

5. Hirilur eta landalurreko lurzatiketa eta berpartzelazioak bideratzeko zerbitzuak, eta baita kompensazio hirigintza proiektuak tramitatzea ere:

- 250 m² arteko azalera: 1,05 € m²-ko
- Gainerako m² bakoitzeko: 0,10 €
- Gutxieneroa: 52,79 €.
- Udal partaidetza eskatzen duen batzar bi edo gutxiago egitearren: 126,70 €
- Udal partaidetza eskatzen duen hiru batzar edo gehiago egitearren: 316,76 €

6.- Edonolako antolaketa planeamenduak egin zein aldatzeko zerbitzuak: Plan Zehaztuak baimena ematen duen gehienezko eraikigarritasunaren m² bakoitzeko: 0,84 €

7.- Hondamen deklarazioari buruzko txostenak norbaitek eskatuta: 211,17 €



Nabarnizko Udala

Hondamen zehaztapidetza kontrajarriak tramitatzearen: 527,94 € gehi hondamenari buruzko udal txostenaren ordainsarien kopurua.

8.- Mugaketa prozeduraren tramitazioa:

Gutxienekoa: 116,15 €. Gutxieneko hori, mugatu beharreko lursailaren arabera, ondorengo kopuruengatik handituko da:

– 1.500 m²arteko neurketetan: 0,42 €/m².

– 1.500 m²tik 5000 m²arteko neurketetan: 0,32 €/m².

– 5.000 m²tik goragoko neurketetan: 0,21 €/m².

Kasu guztietan topografi azterketaren kostua eskatzailearen kontura izango da.

9.- Eskatzaileak aurkeztutako lizentziari edo izaera berdintsuko prestamenari hura eman edo dagokion ebazpena hartu aurretik uko egiten dionean, kobratu beharreko kuotak aurreko ataletan ezarritakoaren %50ekoak izango dira, beti ere udalak iharduerari benetan ekin badio.